AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5728

AGINDUA, 2011ko azaroaren 3koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena. Honen bidez, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako epaimahai kalifikatzailearen eraketa aldatzen da; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Natur eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi Mailako Teknikaria aukeran karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesurako epaimahaiarena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Natur eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi Mailako Teknikaria aukeran karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesurako deialdia egin zuen (2011ko irailaren 20ko EHHA). Oinarri orokor horiek ezartzen dute Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, aginduaren bidez, hautaprobak kalifikatuko dituzten epaimahaikideak izendatuko dituela, eta izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko urriaren 20ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Laguntzaile Teknikoen kidegoko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuetako epaimahaien kideak izendatzen ditu.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak langileak hautatzeari buruz 23. artikuluan eta II. tituluaren IV. kapituluan ezartzen duenarekin bat, eta lege horretako 6.1.i) artikuluaren bidez emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako epaimahai kalifikatzailearen eraketa aldatzea; hain zuzen ere, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Natur eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi Mailako Teknikaria aukeraren hautaketa-prozesurako epaimahaiarena. Aldaketa honako hau da:

Lehendakaria	Titularra	Arturo Blasco Blasco
	Ordezkoa	Mario Michel Rodriguez
1. bokala	Titularra	Carmelo Basoredo Ledo
	Ordezkoa	Miren Edurne Barañano Etxebarria
2. bokala	Titularra	Bernardo Samaniego Gil
	Ordezkoa	Jose Ignacio Pérez de Leceta Ochoa de Alda
3. bokala	Titularra	Carmen Cantabrana González
	Ordezkoa	M.ª Begoña Benito Ávila
4. bokala	Titularra	Miguel Angel Osúa
	Ordezkoa	Mónica Gordo Díaz
5. bokala	Titularra	Margarita Domingo Uriarte
	Ordezkoa	M.ª Asunción Sánchez-Monge Laguna de Rins
6. bokala	Titularra	Jose Javier Urreta Gurruchaga
	Ordezkoa	Jose Antonio Eguiluz Abecia
7. bokala	Titularra	Jose Javier Campo Ocharan
	Ordezkoa	Joseba Andoni Beldarrain Agirre
Idazkaria	Titularra	M.ª Jesús Urkiola Mendibil
	Ordezkoa	Carmen Miralles Jordá

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Hirugarren artikulua.– Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehenago, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hala ezartzen baitute 30/1992 Legearen 116. eta ondorengo artikuluek (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. (Errekurtso horri ez bazaio ebazpen adierazirik egiten, errekurtsoa ezetsi dela joko da.

Halaber, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 3a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.